

Atunaren iraunkortasunerako Nazioarteko Deklarazioaren Akordioa

Arrantza jarduera funtsezkoa da hazten ari den munduko populazioaren elikadura bermatzeko. Gaur egun, arraina eta arrantzako produktuak nutrienteen funtsezko iturri bat dira, dieta orekatu eta osasungarria edukitzeko, eta balio ekonomiko handia sortzen dute. Zati handi bat basa egoeran harrapatzen da, eta, ondorioz, funtsezkoa da ustiaketa hori egoki kudeatzea, iraunkortasuna bermatzeko.

Tunidoak munduko ozeano guztietan daude presente, eta, haien handi batean, herrialde askok atunaren menpe daude segurtatzeko elikagaiak eta nutrizioa, garapen ekonomikoa, enplegua, bizitzeko bitartekoak, kultura eta aisialdia. Gaur egun, 80 herrialdek baino gehiagok atunetan diharduen arrantza sektorea dute, mundu osoko ozeanoetan diharduten milaka arrantzontzirekin, ia 60 milioi enplegu sortuz. Eta elikagai osasungarri eta proteina naturalen iturri horren eskariaren hazkundearen ondorioz, arrantzarako gaitasun globala ere handitzen ari da ozeano guztietan.

2017an, 93,4 milioi tona arrantzatu ziren, horietatik 4,9 milioi tona tunidoen espezie nagusietakoak (atun moja, marraduna eta hegal horia bezalako espezie tropikalak, atungorriaz eta hegaluzeaz gain). Atun espezie nagusiak munduko arrantzaren %20 dira, eta munduan merkaturatzen diren itsasoko produktu guztien %8 baino gehiago, akuikultura barne.

Kontuan hartuta munduko Arrantza Erakunde Erregionalek atun populazioei buruz egiten dituzten ebaluazioak, gaur egun harrapatzen diren 4,9 milioi tonekin Gehieneko Errendimendu Jasangarria arrantzatzen ariko ginateke: hau da, ez daukagu etorkizuneko marjinarik atunaren harrapaketa handitzeko, aldi berean arrain populazioen ustiaketa baldintza jasangarrietan bermatu nahi badugu, ekonomiari, ingurumenari eta gizarteari dagokienez.

Gainera, munduko biztanleria haziko dela aurreikusten delarik, eta klima aldaketa kontuan hartuta, beste faktore batzuen artean, aurreikusten da atunaren per capita kontsumoa nabarmen handituko dela, eta zaila izango dela eskaria asetzea. Horregatik guztiagatik, **ez da ausartegia pentsatzea elikadurako lehengaiak garestitu egingo**

direla, bereziki atuna, eta elikagaiak baliabide estrategikoa izango direla, energia bezain bestekoa, arrantza sektorearen epe luzerako iraunkortasuna mehatxatzen duten faktoreei bidea irekiz: gehiegizko harrapaketak, legez kanpoko arrantza, aitortzen ez dena eta arautu gabea (kalkulatzen da dagoeneko merkaturatzen diren atunen milioi bat tona legez kanpoko arrantzatik datozela), lan baldintzen degradazioa (kasu batzuetan oso baldintza eskasak eta are esklabutzakoak, askotan legez kanpoko arrantzari lotutakoak), eta ingurumenaren degradazioa, besteak beste.

Ondorioz, gizateriarentzat lehen mailako lehentasunak da atunak garapen jasangarrian, elikaduraren segurtasunean, ekonomian eta balio kate osoan parte hartzen duten pertsonen Giza Eskubideetan jokatzeko duen funtsezko rola aitortzea eta zaintzea; atunaren eta elkartutako espezieen baliabideen iraunkortasuna bermatzea, eta arrantzatzen eta ekoizten dugun komunitateetan erantzukizunez lan egitea.,

Testuinguru horretan, Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta bere Garapen Jasangarriko 17 helburuekin guztiz konprometituta, **Bermeo Tuna World Capital** Elkarteak **Atunaren Iraunkortasunerako Nazioarteko Deklarazio** bat bultzatzen du, eragile guztien artean maila GLOBALEAN konpromiso partekatuak lortzeko, atunaren balio kate osoan eragiteko eta sozioekonomikoki eraldatzeko gaitasunarekin, **atuna eta bere ekosistemak bezain baliabide preziatuak babesteko.**

Deklarazioa sinatzen duten erakunde publikoek eta pribatuek eta gainerako eragileak ohartuta gaude, atunaren kudeaketa jasangarria lortzeko, eta ozeanoetako kontserbazioa eta erabilera jasangarria lortzeko, beharrezkoak direla lankidetzak, kontzientziazioa eta lan partekatua eta jarraitua. Horregatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

Konpromisoak:

1. Atunaren iraunkortasuna modu integralean lantzea, arrantzatokien eta horien kudeaketan eta ustiaketan inplikaturiko pertsonen ezaugarriak aitortuz ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari dagokienez.
2. Atunaren balio kate osoan inplikaturiko pertsona guztien estandar sozialak eta lan eskubideen hobekuntza sustatzea, garrantzi berezia emanez arrantzaleei.
3. Artisau arrantza eta arrantza arduratsuko komunitateak babestea.
4. Atunaren balio nutrizionala elikagai iturri osasungarri moduan sustatzea.
5. Modu arduratsuan eta jasangarrian harrapatutako atunaren kontsumoa bultzatzea.
6. Transakzio komertzial guztien trazabilitatea bermatzeko tresnak inplementatzea, iruzurra eta zirkuitu komertzialetan legez kanpoko arrainak sartzea galarazteko.
7. Arrainaren jatorriari buruzko informazioa emateko betebeharra bultzatzea produktu guztietan, batez ere kontserba latetan eta izoztuetan.
8. Arrantzaren ustiapena eta kudeaketa eraginkortasunez arautzea, eta legez kanpoko arrantzatik datorren edozein arrain baztertzea.
9. Jasangarritasunaren eta kudeaketa eta ustiapeneko praktika onen ziurtagiriak sustatzea atunaren balio kate osoan.
10. Gobernantza sistemak hobetzea kontrol eta ikuskaritza neurri efizienteekin, arrantza jasangarriko politika baten praktika finkatzeko.
11. Zientzialarien eta arrantzaleen arteko lankidetzak erraztu eta sustatzea.
12. Lankidetzan aritzea informazioa eta datuak hobetzeko, ezagutza zientifikoa handitzeko, ikertzeko gaitasuna areagotzeko, eta teknologia transferitzeko itsaso-arrantza gaietan.
13. Ingurumen inpaktua minimizatzea atunaren balio kate osoan.
14. Itsas ingurunea eta bere baliabide bizidunak babestu eta zaintzea kutsaduraren eta ingurumen degradazioaren aurka.